# KIMU 2019

HAUR ETA GAZTE
PUBLIKOARI ZUZENDUTAKO
ARTE ESZENIKOETAN
FORMAKUNTZA

**NAIA MUÑOZ MURUA**



**MEMORIA**



# AURKIBIDEA

1. Ibilbidea..................................3
2. Ikerlana..................................13
3. Hausnarketa..........................18
4. Informazio gehigarria...........24




# IBILBIDEA

**Hurrengo orrialdeetan KIMU proiektuaren barruan egin dudan ibilbidea azalduko dut, bisitatu ditudan jaialdiak, egin ditudan formakuntzak eta ikusi ditudan ikuskizunekin.**




# MOMIX JAIALDIA

*Momix 28. Festival International Jeune Public*

**Data**: 2019ko otsailaren 6tik 10era
**Lekua**: Kingersheim, Frantzia
http://www.momix.org

1989an sortu zenetik, CREA praktika artistikorako espazio gisa eta eskaintzen dituen aisialdi jarduerengaitik ezagutzen da, kontsumoaren ideia sinplistari alternatiba eskainiz. Gizabanakoaren alde sortzailea suspertzea eta beraien kideen potentziala garatzea bilatzea dute helburu.

CREAk Frantziako Kultur eta Komunikazio Ministroak ematen duen "Scène Conventionnée Jeune Public" zigilua lortu izan du, MOMIX Jaialdiak urteetan egindako lana aintzatetsiz.

MOMIX-ek, urtero, jatorri artistiko ezberdinetako 40 konpainia profesionalei egiten dio harrera (antzerkia, dantza, musika, txotxongiloak, etab.), Beren bikaintasun, eduki eta kalitate estetikoagatik aukeratuak, baita, aldi berean, publiko guztientzako irisgarritasunagatik.
25 urte baino gehiago daramatzan MOMIX jaialdiak ikusle gazteei zuzendutako arte eszenikoen munduan nazioarteko erreferentziazko jaialdi bihurtu da.

28. edizio honetan, Momix-ek Alemaniako sorkuntza nabarmendu du.

## EGINDAKO FORMAKUNTZA

### PREAC Formakuntza: Nerabezaroa eta zuzeneko ikuskizunak

Canopé[1] eta DraC[2], Errektoretza, CREA[3] eta PREAC[4]-en elkarlanean, eta Frantziako Kultura eta Hezkuntza Ministeriotzaren laguntzarekin, ikasle, irakasle eta bitartekari kulturalei zudendutako zeharkako formakuntza. Frantziar estatuko prestakuntza ofizialen barruan erregistratuta dago.

Programak lurralde bakoitzeko hezkuntza artistiko eta kulturalaren politika kontzertatua ezartzeko nahiari erantzuten dio eta hezkuntza eta arte hezkuntza kulturala garatzeko baliabideak eta tresnak eskaintzen ditu.

CrEa-k Momix jaialdiaren barruan murgiltze-formakuntza eskaintzen du. Gaia: "Nerabezaroa eta zuzeneko ikuskizunak: gorputza, irudia, hizkuntza" Prestakuntzan zehar artistekin praktikak, ikuskizunak, tailerrak eta topaketak uztartzen dira.

## IKUSITAKO IKUSKIZUNAK

- Gegenüber (Helios Theater), Alemania. (+4)
- Le Cirque Pietre (La Faux Populaire-Le Mort aux dents), Frantzia. (+8)
- Manque a l'appel (Tony Melvil et Usmar), Frantzia. (+5)
- Tout seul(s) (Le LAABO et ATLAST), Frantzia. (+8)
- The Basement (De Dansers-Theater Strahl-Wies Merkxs), Alemania. (+13)
- Akim Rent (Cie Toit Végétal), Frantzia (+6)
- Kolok (Cie EVER), Frantzia. (+7)
- Sens (Cie Arcosm), Frantzia. (+7)
- Rien a dire (Cie Leandre), Katalunia. (+6)
- Jean Jean ou on a pas tous la chance (Cie Trou de Ver), Belgika. (+12)
- J'ai écrit une chanson pour McGyver (Le joli Collectif), Frantzia. (+12)

[1] Canopé: Hezkuntza Sorkuntza eta Laguntza Sarea, administrazio publikoko erakunde publikoa eta hezkuntza baliabide publikoen editorea da, Frantziako Hezkuntza Ministerioaren agintaritzapean. https://www.reseau-canope.fr/
[2] DRAC: Eskualdeko Kultur Gaietako Zuzendaritza, Kultura Ministerioaren zerbitzu deszentralizatua Frantziako eskualde bakoitzean.
[3] CREA: Sormena garatzeko Frantziako elkartea. http://crea-france.fr
[4] PREAC:Arte eta kultura hezkuntzarako baliabide zentroak. Gaur egun 38 daude, 9 esparru artistikoetan banatuta.




# FETEN

*Feria de teatro FETEN para niños y niñas*

**Data**: 2019ko otsailaren 19tik 21era
**Lekua**: Gijon, Espainia
https://feten.gijon.es/

FETEN, haurren Arte Eszenikoen Europako Azoka, arte eszenikoak sortzeko eta banatzeko sektore desberdinen arteko trukea eta lankidetza sustatzen duen gunea da.

FETENen edizio guztietan funtsezko egitura mantentzen da. Hau da, azoka izaera, estautuko zein Europako programatzaileak, banatzaileak,... biltzen dituena; baina baita ikuskizunen erakusketak, eztabaida-foroak, liburuen aurkezpenak, erakusketak eta abar ere.

## IKUSITAKO IKUSKIZUNAK

- El Viaje de Ulises (Gorakada), Euskal Herria. (+6)
- Ohlimpiadas (Cía Sincronacidas), Espainia. (publiko guztiak)
- Seu-te! (Acrobàcia Mínima), Espainia. (publiko guztiak)
- Distans (Vol'e Temps), Espainia. (publiko guztiak)
- El misterioso caso de Houdini... (Nacho Diago), Espainia. (+6)
- Bloop! (Compañía Pep Bou), Espainia. (+4)
- Chorpatélicos (Titiriteros de Binéfar), Espainia. (+4)
- Control Freak (Kulu Orr), Frantzia/Israel. (+8)
- Babo Royal (Ganso&Cía), Euskal Herria. (publiko guztiak)




# DFERIA

*Dferia Arte Eszenikoen Azoka*

**Data**: 2019ko martxoaren 11tik 14ra
**Lekua**: Donostia, Euskal Herria
https://www.dferia.eus

1988an izan zen lehenengoa, eta gaur egun erreferente argia bihurtu da Espainia osoko arte eszenikoetako profesionalentzat, eta harremanak estutzen jarraitzen du Latinoamerika eta Europako merkatuekin. Antzerkiaren topaleku gisa ondo sendotutako kultur gertaera izaki, urteak daramatza Estatu osoko ferien buruan.
Donostiako Feriak, areto programazioari eta etorri ohi diren programatzaileen ugariari esker, nabarmentzea lortu du. Programazioan eta produkzioan duen kalitatea da dFERIA honen ezaugarri nabarmengarrietako bat.

Donostiak, dFERIAri esker, arte eszenikoen 400 profesional baino gehiago hartzen ditu. Horietarik, 200 inguru programatzaileak dira. Nabarmentzekoa da Estatuko antzoki nagusietako ia programatzaile guztiak etortzea, bai eta nazioartekoak ere, hala europar nola latinoamerikarrak.

## IKUSITAKO IKUSKIZUNAK

- Julietas, Romeo Circo (Markeliñe), Euskal Herria. (publiko guztiak)



# OARAKO LANEGUN PROFESIONALA

*JOURNÉE PROFESSIONNELLE « Produire et diffuser à l'international »*

**Data**: 2019ko maiatzak 21
**Lekua**: Le Parvis. Scène Nationale. Tarbes Pyrénées
https://www.pyrenart.eu/

OARAk eta PYRENART[2] proiektuak antolatutako nazioarteko banaketa eta ekoizpenaren inguruko lan-egun profesionala.
Lan-egunean zehar landutako gaiak:

- Espainian, Frantzian eta nazioartean ekoiztea eta saltzea
- Banaketa eta ekoizpenaren sektoreak eta erronkak Espainian, Frantzian eta nazioartean
- Sareak, birak, profesionalekin harremanak
- Praktika juridikoak: kontratuak, bisak, BEZa, legezko ekarpenak, arau sozialak, arau fiskalak, nazioartean
- Zer nolako mugikortasunerako laguntzak, finantzaketa pribatu edo publikoetarako funtsak

[1] OARA: Akitania Berria eskualdeko Bulego Artistikoa. https://oara.fr/
[2] PYRENART: Mugaz-gaindiko Frantzia eta Espainia arteko proiektua. Bere helburua lurralde honetako artisten eta egituren ikusgarritasun profesionala hobetzea da, nazioarteko arte eszenikoen sareetan sartzea errazteko. https://www.pyrenart.eu/



# ESCUELA DE VERANO DE LA RED

**Semana 4 a 8 de junio**

**www.redescueladeverano.es**
**escueladeverano@redescena.net**
**91 548 95 60**

## ALMAGROKO UDAKO ESKOLA

*Escuela de Verano de La Red para técnicos*
*y gestores del espectáculo en vivo*

**Data**: 2019ko ekainaren 2tik 6ra
**Lekua**: Almagro, Espainia
https://www.redescueladeverano.es/

Espainiako Jabetza Publikoko Antzerki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaietako Sareak 2006an abian jarri zuen etengabeko prestakuntza proiektua - Espainian eta Europan aitzindaria - zuzeneko ikuskizunetako teknikari, artista eta kudeatzaileei zuzenduta.

## EGINDAKO FORMAKUNTZA

Aukeratutako formakuntza atal bitan banatu da:

a) Arte Eszeniko eta gazteen inguruko eztabaida-gunea
b) Hezkuntza departamentu baten diseinu eta sormen tailerra

## Arte Eszeniko eta gazteen inguruko eztabaida-gunea

Badira urteak espazio eszeniko publiko eta antzokietan ikusle gazte eta nerabeen gabezia dagoela.
Badakigu gai hau gure inguruko beste herrialde askotan ere nabarmena dela. Eta nahiz eta urteetan zehar estrategia eta tresna ezberdinak garatu diren gazteekin parte hartzea, sarbidea eta komunikazioa hobetzeko, geure buruari galdetu diezaiokegu zein momentutan gauden. Non kokatzen dira gazteak, gaur egun, arte eszenikoetan? Eszenatoki publikoek lekua ematen diote sorkuntza zein publiko gazteari? Zer ikuspuntu dute kultur kudeatzaile gazteek? Belaunaldien arteko banaketaz hitz egin dezakegu kultura egiteko moduei buruz? Eta zer gertatzen da publiko gaztearekin? Zein dira gaur eguneko abantailak edo eragozpenak?

## Hezkuntza departamentu baten diseinu eta sormen tailerra

Kultur zentroek erantzukizun artistikoa ez ezik, hiritarrenganako erantzukizuna ere badute.
Mundu osoan zehar, kultur-sektoreak bere eragina neurtzeko, bere garrantzia birdefinitzeko, eta arteen sarbidea handitzeko erronka izaten ari da. Jarduera didaktiko eta komunitarioen garapenak arteen eragina handiagotzeko aukera du, eta ezarritako audientziarekin loturak sendotzeko tresnak dira, baita konbentzionalak ez diren ikusleekin lotura berriak sortzeko.

Tailer honetan, mundu osoko hezkuntza departamentuen adibideak aztertu ditugu, besteak beste, New York-eko Lincoln Center for the Performing Arts bezalako zentro ospetsuenetako bat. Eta instituzioen ikuspegi artistikoen anplifikatzaile gisa balio duten hezkuntza egiturak garatzeko prozesua aztertu ditugu.

***Irakaslea: Alex Sarian***
Alex Sarian estrategia eta kultur kudeaketan aditua da. Gaur egun, Arte Eszenikoen Lincoln Zentroan lan egiten du: hezkuntza eta komunitate programazioen, gazteentzako eta familientzako programazio artistikoaren eta New York hirian kultur proiektu berritzaileentzako diru-laguntzak ematearen arduraduna da.




# ASSITEJ ARTISTIG GATHERING

*SAND Festival: International Festival of Performing Arts for a young audience*

**Data**: 2019ko irailaren 2tik 6ra
**Lekua**: Kristiansand, Norbegia
http://sandfestival.no
https://www.aag2019.no

SAND Jaialdia arte eszenikoen nazioarteko jaialdia da. Bere helburua kalitate handiko norbegiako eta nazioarteko ikuskizunak aurkeztea da.1994an jaioa, hasieran bi urtero ospatzen bazen ere, gaur egun urtero egiten den jaialdia da. Aurten Assitej[1]-en bilera artistikoa antolatu da jaialdiaren baitan.

[1] ASSITEJ: Association Internacionale du Théâtre pour la réflexion et la jeuneusse). Nazioarteko erakundea. Parisen sortu zen 1965ean UNESCOren Nazioarteko Antzerki Institutuak haur eta gazteentzako antzerki profesionalaren aliantza global gisa. Gaur egun mundu osoko sarea da eta milaka antzoki, erakunde eta norbanako elkartzen ditu 80 herrialde baino gehiagotako zentro nazionalen bidez. https://www.assitej-international.org

## FORMAKUNTZA ETA TAILERRAK

Jaialdi edo topaketetan zehar, hainbat hitzaldi eta mahai-ingurutan parte hartu izan dugu KIMUko kideok.

## IKUSITAKO IKUSKIZUNAK

- Rita (Tuning People & BRONKS), Belgika. (+8)
- Baba Yaga (Windmill Theatre), Australia. (+7)
- Garage (Cirka Teater), Norbegia. (+10)
- Mother Africa & her melodies (Tefo Paya), South Africa. (all ages)
- The girl with the ugly face (NIE - New International Encounters)(+6)



# "IKERLANA"

**Hurrengo orrialdeetan hasiera batean pentsatututako "ikerlanaren" hasiera eta KIMU bidaian zehar egin ditudan hausnarketa batzuk plazaratuko ditut**



# IKERLAN SAIAKERA

Hasiera batean nire ideia Euskadin ekoizten diren haur eta gazteei zuzendutako ikuskizunetan genero ikuspegiaren inguruan hausnartzea bazen ere, generoa alde batera utzi eta 2018 eta 2019an ekoiztutako lan profesionalen datuak mahai gainean jarriko ditut. Alde batetik, dauden datuak kontuan izanik, eta beste alde batetik, ikerlan honeek beharko leukean denbora guztia inbertitu ahal izan gabe.

SAREA[1]ko datu basea kontuan harturik, 2018 eta 2019 bitartean haur eta gazteei zuzendutako 33 ikuskizun ekoiztu dira Euskadin (Nafarroa eta iparralde albo batera utzi beharko ditugu oraingoan, ekoizpenen datuak lortzea ez baita ain erraza).

33 ikuskizun hauen zenbait alor objetibo aztertuko ditut:

- Estreinu data
- Probintzia
- Hizkuntza
- Zuzendaritza
- Arte eszenikoen disziplina

[1] Euskadiko Antzoki Sarea. http://www.sarea.euskadi.eus

# 33

2018 eta 2019 artean haur eta gazteei zuzendutako 33 ikuskizun ekoiztu dira Euskadin.

## HIZKUNTZA




## PROBINTZIA




Hizkuntzari dagokionez, ekoitzitako lan gehienak euskaraz izan dira. Asko dira baita ere euskara eta gaztelerako bertsioa dutenak. Hitzik gabe egin direnen artean txontxongilo eta zirkoa dira aipagarriak. Gazteleraz soilik egindakoak, publiko guztiei zuzendutako edota helduentzako antzerkiarekin alderatuta, oso gutxienekoak dira.

Antzezlanak sortu diren probintziari dagokionez, ekoizpenak Bizkaia eta Gipuzkoa artean banatzen dira, eta Araban egindako lanak ez dira %10era ere heltzen. Honen arrazoia kuantitatiboa da guztiz, izan ere, Araban dauden arte eszenikoen konpainia kopurua, beste probintziekin konparatuta askoz txikiagoa delako.

# URTEA




Bi urtetako datuak soilik hartu baditut ere, haur eta gazteei zuzendutako ikuskizunen sorkuntza eta ekoizpenaren inertzia positiboa dela esan daiteke 2018 eta 2019ko datuak azterturik.

# ZUZENDARIA




Lanen zuzendaritzari dagokionez, ekoitzitako lanen ia erdiak gizonezkoek zuzendu badituzte ere, emakumeek soilik zuzendutako lanek %42.4a dira. Helduentzako arte eszenikoetan ez bezala, nahiko parekatuta dago, behintzat urte bi hauetan.

# DISZIPLINA




Haur eta nerabeei zuzendutako arte eszenikoen tradizioak jarraituta, lan gehienak antzerkiaren barruan sartuko liratekez, ia erdia. Eta garrantzia handia dute musikan oinarritatuako ekoizpenek, baita klown eta txontxongiloetan oinarriatutakoek. Zirkuari dagokionez, ehunekoa txikia bada ere, arrazoi bat dauka: EHan egiten diren zirku ikuskizun ia gehienak publiko guztiei zuzenduta daude.

Beraz. Euskadiko Autonomi Erkidegoan 2018-2019. urteetan ekoitzitako haur eta nerabeei zuzendutako arte eszenikoetako ikuskizunik gehienak:

| 2019an | Gipuzkoan | Euskaraz | Antzerkia | Zuzendari gizona |
|---|---|---|---|---|





KIMU deialdiak iraun duen 2018-2019.urte honetan zehar, haur eta nerabeei zuzendutako ikuskizun, formazio, tailer eta hausnarketak ikusi, sentitu eta ikasteko aukera izan dut.



Esaten dute hirugarrenean asmatu egiten dela, eta horrela izan da nire kasua. Izan ere hirugarren aldia deialdira apuntatzen nintzela, eta hirugarren honetan izan da aukeratua izan naizenean. Eta guztia zerbaitengatik pasatzen dela esaten dute ere, eta honetan ere, sinistu egiten dut.

Izan ere, haurrei zuzendutako KASKAROT lana esku artean nuela jaso nuen deialdi/beka hau: haurrei zuzendutako lan batean bihotzetik murgiltzen naizen lehenengo aldia. Hau dela eta, esponja baten moduan, ingurutik hartu eta ikasteko ahal izan dudan guztia xurgatzeko inoiz baino gogo handiagoekin nengoen. Erronka handia baitnuen aurretik.

Jaialdietara joatea, beti bezala, oso inspiragarria eta baliogarria izan da, batez ere gugandik ez hain gertu dauden konpainiek egiten dituzten lanak ikusi eta ikasi ahal izateko. Bidaiatzeak beste herrialde batzuetan egiten ari diren gauzak deskubritzeko eta ezagutzeko aukera ematen du beti, eta arte eszenikoekin ere berdina gertatzen da. Horrela izanik, Frantziako iparraldera joatea, Norbegiara joatea, Espainiara joatea....errealitate ezberdinak ezagutzeko aukera eman dit.

3 herrialde ezberdinetako jaialdi hauetan egonik (Frantzia, Norbegia eta Espainia) eta Euskal Herrian bertan ikusteko aukera izan ditudan ikuskizunak zenbatuta, orotara, 10 herrialde ezberdinetako 31 lan ikusi ditut: frantziako 10 ikuskizun, Euskal Herriko 7, Espainiako 6, Alemaniako bi, Belgikako bi, Hego Afrikako bat, Israeleko bat, Norbegiako bat eta Australiako beste bat.

Formakuntzei dagokienez, zalantzarik gabe, Almagroko formazioa behin eta berrio, urtero, egitea gustatuko litsaidake. Alde batetik, irakasle eta tailerren planteamendua oso interesgarri eta profesionala iruditu zait, urtero gai handi bat hartzen dutelarik eta hortik tailer ezberdinak planteatzen direlarik. Oraingo honetan Alex Sarian-en jakituriatik pixkat ikasteko aukera izan nuen. Alex Lincoln Centerreko hezkuntza programazio burua da eta hiru egunetan zehar Lincoln Centerrean daukaten programazio eredua, familiekin harremanak eta gestioa ezagutzeko eta eztabaidatzeko aukera izan genuen. Kultur Zentru batetik hurrun banago ere, ideia eta hausnarketa asko sortu ziren konpainiak eta kultur zentroen arteko harremanen inguruan, eta benetan baliogarria egin zitzaidan.

Esan bezala, KIMUren ibilbidea KASKAROT ikuskizunaren lan prozesuaren parean joan da, kasualitate edota kausalitatez.  Beraz, gure lanaren sorkuntza prozesua bitartean, ni han eta hemen ibili naiz hamaika ikuskizun ikusten eta estimulo ezberdinak jasotzen. Honek asko lagundu dit batez ere gure lanaren norabidea are gehiago zihurtatzeko, zein antzezlan mota edota estilo nahi genuen zihurtatzeko, eta horri eusteko.

Proiektu zehatz batekin parean ibiltzea oso baliogarria izan bada ere, egia da kasu batzuetan pixkat zaila egin zaidala KIMU bezalako proiektu bat eta nire eguneroko lana bateratzea.

Ibilbidean zehar, ikerketa lanari bueltak ematen joan ahala, interes eta gogo handia izan dut benetako ikerketa-lan sakon bat egiteko. Interesa eta gogoak piztu egin zaizkit, zalantza gabe, baina ez dut izan behar eta nahi nuen denbora guztia ikerketan sakontzeko eta urrunago heltzeko. Positiboki ikusten dut hau, badakidalako, orain piztutako ikertzeko interes horri nozbait helduko diodala berriro, agian medio gehiagorekin, segur aski denbora gehiagorekin.

Momentuz, KASKAROT lanari gogor eutsiko diot abendura arte dudan azkenengo txanpa honetan, eta bidai zoragarri honetan zehar ikasitako guztia islatzen saiatuko naiz. Gonbidatuak zaudete abenduaren 8an KASKAROTen estreinaldira, noski!

Mila esker bihotz-bihotzez eta laister arte!!

Naia Muñoz Murua.


WWW.MOMIX.ORG
pictomatik by pictural.com
MOMIX
28e FESTIVAL INTERNATIONAL JEUNE PUBLIC
MOMIX
Kingersheim
31 jan - 10 fév
2019


Kingersheim
31 jan - 10 fév


FESTIVALPASS
Naia Muñoz Murua
ATX Teatroa (ES)



# Eskerrik asko!






# INFORMAZIO GEHIGARRIA

- Ikusitako ikuskizunak
- 2018-2019. urteetan estreinatutako ikuskizunak Euskadin

| IKUSKIZUNA | INFO+ | ADINA | KONPAINIA | KONPAINIAR EN HERRIALDEA | DATA | LEKUA | HERRIA | HERRIALDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **LUR** | Julian jostailu denda zahar baten jabe da. Egun gutxi barru Ane, bere bilobak, sei urte beteko ditu eta opari berezi bat prestatzen ari zaio; berarentzat propio egindako panpina. Anek eta Julianek bidaia zirraragarri bat hasiko dute panpinarekin batera, desioak betetzen dituen izar majiko baten bila. Itxuraz abentura irudimentsua dirudienak Ane eta Jon, bere aitaren, arteko harremana berbideratzen lagunduko du. Azken aldian Jonek onarpen arazo bat dauka. Izan ere, Ane mutila da. | Publiko guztiak | Xake Produkzioak | Euskal Herria | Abendua 2018 | Gastezena (Egia K.) | Donostia | EH |
| **BAZEN BEHIN INTERNET** | Behin Bazen Internet ipuin teknologiko bat da. Data, gure heroi tematsua, Interneten bizi da eta pakete misteriotsuak banatzen ditu zuntz optikozko kableetan. Bere abenturak segitzen ditugu, bideratzailetik zerbitzailetarat, 0 eta 1-en sekretua aurkitzeko.<br><br>Ikusgarriak antzerkia eta mediazio zientifikoa nahasten ditu Interneten funtzionamendua euskaraz kondatzeko deneri.<br><br>Jatorrizko lana (Il était une fois l'Internet) 2015ekoa den arren, euskarazko bertsioa 2018an estreinatu da. | | Cie 13R3P | Euskal Herria | Azaroa 2019 | Théâtre des Chimeres | Hendaya | EH |
| **KAFFKA** | Gehitu elkartea, Kamikaz Kolektiboarekin harremanetan jarri zen, aniztasun sexu-afektiboaren sensibilizazioa eta ikusgarritasuna jorratzeko antzezlan bat sortzeko helburuarekin. Proiektua martxan zegoen bitartean, Ortzadar LGBT elkartea gehitu zitzaigun. Hiru eragileen elkarlanetik sortu da KÄAFKA antzezlana.<br><br>Proiektu hau, bereziki nerabeei zuzendua dago, eta helburu didaktikoa du. | Nerabeak | Kamikaz Kolektiboa | Euskal Herria | Urtarrila 2019 | Pabellón 6 | Bilbao | EH |
| **GEGENÜBER** | Deux individus, deux personnages qui font les mêmes mouvements, disent les mêmes mots, en douceur et en parfaite harmonie. Cela pourrait durer éternellement. Mais l'un d'eux poursuit, différemment, à son propre rythme. Volontairement ? Par erreur ? L'un ayant dévié du rituel amical, l'autre impose des règles rigoureuses pour que cela n'arrive plus. Avec des projections vidéo surprenantes, des rythmes humoristiques et des textes ludiques, Helios Theater traite la question de la rencontre humaine : un sujet qui préoccupe autant les enfants que les adultes. | 4< | Helios Theater | Alemania | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |
| **LE CIRQUE PIETRE** | Onze ans après la création de son solo Le Cirque Précaire, suivi du Cirque Misère et trois ans après celle du Cirque Poussière, Julien Candy poursuit sa trajectoire artistique, musicale, théâtrale et circassienne à travers ce nouveau spectacle. Il invite le public à prendre part dans cette création qui questionne l'art et la culture à travers le temps. Se pose la question du beau, de l'art, du classicisme, du laid qui est beau, du goût, du bon goût, de l'apparence….. Dans cette volonté d'interroger nos rapports au beau, à l'art, c'est un reflet de notre société qu'il dépeint : après la question de l'imitation ou de la stylisation de la nature (Aristote, la Poétique), l'homme ne se réduit-il pas aujourd'hui qu'à s'imiter? | 8< | La Faux Populaire-Le Mort aux dents | Frantzia | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **MANQUE A L'APPEL** | Tony Melvil & Usmar nous proposent un concert « augmenté », une forme hybride dans laquelle leurs voix nous appellent à l' indiscipline. Manque à l'appel parle de l'autre quand il est absent, des histoires qu'on lui imagine, des vies qu'on s'invente pour combler le manque. L'absence libératrice quand on se retrouve enfin seul ! Quel précieux refuge que son monde intérieur quand on aimerait simplement se faire oublier. Et quel formidable tremplin pour nos imaginaires quand quelqu'un manque à l'appel ! | 5< | Tony Melvil et Usmar | Frantzia | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |
| **TOUT SEUL(S)** | Peut-on rêver de quelque chose sans l'avoir jamais vu ? Imaginez un personnage surnommé Tout Seul. Né dans un théâtre qui a fermé depuis de nombreuses années, il n'en est jamais sorti ! Ses journées se ressemblent, entre le rituel du quotidien et l'imagination du monde à travers les définitions d'un dictionnaire. Un jour, une rencontre va définitivement bouleverser son existence… Inspiré d'une BD de Christophe Chabouté, ce spectacle poétique est une ode à la puissance et à la nécessité de l'imagination. | 8< | Le LAABO et ATLAST | Frantzia | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |
| **THE BASEMENT** | Dans The Basement, tout le monde se bat et par-dessus tout avec soi-même. Personne n'aime être seul. Mais qu'advient-il quand la peur du rejet est aussi grande que le désir de lien ? Le spectacle traite des sentiments contradictoires propres à l' adolescence, l'âge des nouvelles expériences, des prises de risque, l'âge du pire et du meilleur. Comment se rapprocher des autres tout en protégant sa vulnérabilité ? Six danseurs et musiciens tenteront pas à pas de relever ce défi. En définitive, The basement appaise en brisant nos carapaces et en laissant un rayon de lumière y entrer. | 13< | De Dansers-Theater Strahl-Wies Merkxs | Alemania | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |
| **AKIM RENT** | | 6< | Cie Toit Végétal | Frantzia | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |
| **KOLOK** | Trois êtres, le visage fermé, impactés malgré eux par les tourments du monde contemporain et son actualité bouleversante. Au croisement des percussions corporelles et du théâtre musical, ils tissent un mode d'expression inédit, parfois doux comme le murmure d'un poème, parfois fougueux, festif et libérateur comme un cri d'amour, parfois enlevé et rigoureux comme la plus impétueuse des fugues de Bach. Ensemble, ils trouveront du sens, de la joie, la gourmandise d'avancer encore et toujours ! | 7< | Cie EVER | Frantzia | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |
| **SENS** | Et si nous déplacions le centre de gravité pour que l'enjeu de cette pièce ne soit pas de comprendre le sens mais d'accepter de le perdre ? De ressentir, de lâcher prise, d'envisager de nouvelles possibilités parce qu'elles sont nombreuses ! Dans cette nouvelle création, Thomas Guerry propose une expérience qui s'étire dans le temps. Le personnage principal nous embarquera ainsi avec lui dans sa quête de sens, ses rencontres sa vie durant. Un voyage dans le temps jubilatoire et surréaliste ! | 7< | Cie Arcosm | Frantzia | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |
| **RIEN A DIRE** | Clochard des sentiments en quête d'amour, Leandre installe la silhouette d'une maison où il vous accueille pour partager une tranche de vie. Certes, tout n'est pas parfaitement rangé : des centaines de paires de chaussettes jaunes au sol, une penderie hantée, des lampes récalcitrantes... mais le propriétaire n'a pas son pareil pour recevoir, avec une élégance bienveillante et un humour teinté d'absurde. Alors entrez donc ! Leandre vous offrira un instant d'éternité que vous n'oublierez jamais ! | 6< | Cie Leandre | Catalunya | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **JEAN JEAN OU ON A PAS TOUS LA CHANCE** | Dans la vie de Jean Jean, il ne se passe rien et personne ne fait attention à lui. A croire qu'il est invisible ! Parfois il en arrive à douter qu'il existe ! Il a cependant deux amis, Claire, « lafillelapluschiantedelécole » et Arthur, « lemeclepluscooldelécole » qui ont eux –évidemment ! – une existence « formidable » entre leurs histoires de cœur et les disputes avec les parents ! Pour Jean Jean, c'est décidé ! le calme plat c'est fini, il est prêt vraiment… à tout ! pour que bientôt tout ça puisse changer. | 12< | Cie Trou de Ver | Belgika | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |
| **CONTACTFULL** | | | Dégadézo | Frantzia | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |
| **J'AI ÉCRIT UNE CHANSON POUR MCGYVER** | De son amour inconditionnel de MacGyver (le héros multifonction au couteau suisse multi-lames de la télévision des années 80-90' !), au concert d'NTM en passant par les années d'internat vécues comme un espace de liberté, Enora Boëlle retrace dix ans de son adolescence avec ses angoisses, ses rêves et ses premières désillusions. Avec tendresse et beaucoup d'autodérision, elle dresse un tableau de ces années marquantes et formatrices que chacun(e) a traversées et traversera… avec les références de son époque. | 12< | Le joli Collectif | Frantzia | Otsaila 2019 | MOMIX Jaialdia | Kingersheim | Frantzia |
| **EL VIAJE DE ULISES** | Desde el monte Olimpo, los dioses griegos gobernaban a los seres humanos influyendo sobre ellos con su protección o su abandono. Algunos hombres se atrevieron a desafiarles y fueron víctimas de su ira. Fue el caso de Ulises, que ofendió a Poseidón al dejar ciego a su hijo Polifemo. El dios le castigó impidiéndole volver a Ítaca y haciéndole vagar sin rumbo por el Mediterráneo. El viaje de Ulises es una metáfora de la vida, de la lucha contra las dificultades y su superación. | 6< | Gorakada | Euskal Herria | Otsaila 2019 | FETEN Azoka | Gijon | Espainia |
| **OHLIMPIADAS** | Dos limpiadoras aburridas de su rutina diaria entran en un mundo de ensoñación en el que su jornada laboral es retransmitida como si se tratase de una competición olímpica.<br>Ohlimpiadas es un espectáculo en el que comedia y circo se unen para crear un mundo absurdo y disparatado, narrado a través de la voz en off de Julia Luna, conocida comentarista deportiva que participó en la retransmisión por TVE de los mundiales de natación y de los Juegos Olímpicos. | Publiko guztiak | Cía Sincronacidas | Espainia | Otsaila 2019 | FETEN Azoka | Gijon | Espainia |
| **SEU-TE!** | Seu-te! es cercano y delicado, y a la vez divertido y juguetón. Apuesta por la innovación, siempre priorizando la diversión y las emociones. Un montaje de portes, acrobacias y equilibrios inverosímiles en el que el espectador es invitado a participar activamente, a entrar en el juego. Un ambiente confortable y cercano donde la esencia de la tradición llega a través los sonidos, los objetos y la estética (robustas mesas y sillas, un botijo…), aportando calidez y seguridad. | Publiko guztiak | Acrobàcia Mínima | Espainia | Otsaila 2019 | FETEN Azoka | Gijon | Espainia |
| **DISTANS** | Un pacto, un código secreto, una cápsula del tiempo, una promesa…<br>Dentro de 20 años, en el mismo sitio a la misma hora. La vieja casa del árbol, donde dos amigos compartían sus tardes de ocio entre juegos, risas, fantasías y complicidad.<br>DistanS habla de amistad: los recuerdos que siguen vivos en nuestros corazones a pesar de los años. Habla de la fragilidad del ser humano, de la ruptura, de la soledad y del amor capaz de regenerar y reconstruir nuestras relaciones con los demás. Un viaje a través de las emociones en un espacio visual y sonoro que envuelve las escenas de circo acrobático y teatro gestual, conformando un espectáculo orgánico, sensible y divertido. | Publiko guztiak | Vol'e Temps | Espainia | Otsaila 2019 | FETEN Azoka | Gijon | Espainia |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **El misterioso caso de Houdini y la habitación cerrada** | En 1916 ocurrió algo que marcó la vida de Harry Houdini. Un hecho que ocultó en su día y que mucho después apareció relatado en un diario escondido en una de sus cajas de magia. Houdini, mítico mago y escapista, fue también famoso por su lucha contra los estafadores que aseguraban tener contacto con los espíritus y el más allá.<br>Logró resolver todos los casos «paranormales» que se le presentaron, encontrando explicaciones lógicas para cada uno de ellos. Para todos... menos uno. | 6< | Nacho Diago | Espainia | Otsaila 2019 | FETEN Azoka | Gijon | Espainia |
| **Bloop!** | Creado y dirigido por Pep Bou, Bloop! es el nuevo y fascinante viaje a través del universo de las pompas de jabón.<br>Tras el éxito de Clinc!, con más de 350 actuaciones por todo el mundo, la compañía emprende una nueva aventura. Una propuesta atrevida de teatro poético visual lleno de pompas, luces y sombras, fruto del talento, la experimentación y una trayectoria de más de 40 años. | 4< | Compañía Pep Bou | Espainia | Otsaila 2019 | FETEN Azoka | Gijon | Espainia |
| **Chorpatélicos** | Jugamos con poesías y canciones de Federico García Lorca, León Felipe, Rafael Alberti, Nicolás Guillén, Gerardo Diego, Ramón Gómez de la Serna, Gloria Fuertes, Hermanos Rincón, María Elena Walsh y Vainica Doble. Textos que pueden parecer no aptos para los pequeños pero que contienen claves que les son muy cercanas. Federico García Lorca les dijo a unos niños que jugaban divertidos: ¡Qué chorpatélicos sois! | 4< | Titiriteros de Binéfar | Espainia | Otsaila 2019 | FETEN Azoka | Gijon | Espainia |
| **Control Freak** | Circo, humor inteligente y tecnología puntera: el artista lo controla todo a través de accesorios digitales y ordenadores situados en el traje del actor. Los instrumentos utilizados en el show son únicos y han sido desarrollados en los últimos 18 años. Toda la música es tocada y mezclada en directo, y también en directo el control de iluminación y la edición de vídeo.<br>Divertido, cautivador, innovador, totalmente único. | 8< | Kulu Orr | Frantzia/Israel | Otsaila 2019 | FETEN Azoka | Gijon | Espainia |
| **Babo Royal** | Un imperio de 50 metros cuadrados, un rey lunático y un trovador singular. Un pequeño territorio donde reina la excentricidad. Suenan las trompetas, ondean las banderolas. ¡Que dé comienzo el festejo!<br>Todos somos invitados a participar, simbólica o físicamente, en el desfile, combate o torneo real. Todo lo que el rey desee tendrá que hacerse fantasía.<br>Babo Royal es un juego en el que las jerarquías se invierten, lo previsible sorprende y están prohibidas la cordura y la normalidad. | Publiko guztiak | Ganso&Cía | Euskal Herria | Otsaila 2019 | FETEN Azoka | Gijon | Espainia |
| **Julietas, Romeo Circo** | Komediatik dramara doan ibilbidea, gaztetasunetik heldutasunera doan bidaia, zirkuaren eta antzerkiaren lengoaiaren bitartez.<br><br>Romeo eta Julieta narratzaileak airera botatzen dituen bi kapela dira. Hori da agertokian dauden bost antzezleek ikus-entzuleari bi kapela horien istorioa abian jartzen duen puntua. Trapezioak, zintak, uztaiak eta malabarrak maitasunaren, pasioaren eta bizitzaren ahultasunaren konpasean mugituko dira. | Publiko guztiak | Markeliñe | Euskal Heria | Martxoa 2019 | Dferia Azoka | Donostia | Euskal Herria |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Izpiliku sasi gibelean gordeturik, Cyranok lixibaren usain ona zuen** | Itzaleko heroi baten kontakizun atipikoa da Cyrano. Ez da besteak bezalakoa, desberdina da bere sudur handiagatik eta amodioz animatua da, gainera kuraia ez zaio falta eta bihotz onekoa da.<br><br>Bai, Cyranok bere lehengusina maite du, hain dotorea, mairu arrosaren idurikoa, liluragarria. Gizonek amesten duten pozoi eztia da, arropa gorriz jantzia den emakume hura, pixka bat arriskutsua baina gutiziatua…<br><br>Bitartean, Roxanne zoragarriak Christian du gogoan gau eta egun…printze perfektua: hain galanta, hain ederra….baina oso gaizoa, erabat zozoa…<br><br>Nahiz eta Cyrano Obra Frantziako XVII. Mendean kokatzen den, kasu honetan Japoniar itxura duen giro exotikoa zaindu dute “Hecho en Casa” konpainiak (japoniar lorategia, samuraiak, bonzaiak, kimonoak…) | Haur antzerkia | Cie Hecho en Casa | Euskal Herria | Apirila 2019 | Niessen Kulturgunea | Orereta | Euskal Herria |
| **Rita** | Rita is a single woman of a certain age with a great sense of drama.<br>Through her love of opera, she tries anxiously to escape the daily grind and the woes of old age.<br>She gets lost in a mental labyrinth where the boundaries between fiction and reality have become entirely blurred.<br>Like an elderly Alice in Wonderland, she is trying to find her way.<br><br>Rita is a piece that takes everyday life and transforms it into something extraordinary. | 8< | Tuning People & BRONKS | Belgika | Iraila 2019 | Assitej Artistic Gathering 2019 | Kristiansand | Norbegia |
| **Baba Yaga** | Vaselina lives the quiet life, working as a receptionist in a very tall apartment block. But all that changes when she is forced to confront a terrifying resident who plays her music far too loudly and eats jelly babies with her mouth open.<br><br>Who is this mysterious neighbour? Will she ever turn the music down? And what exactly is she planning for dinner? | 7< | Windmill Theatre | Australia | Iraila 2019 | Assitej Artistic Gathering 2019 | Kristiansand | Norbegia |
| **Garage** | In a dirty and crammed workshop, two fixers – with an urge to always improve and develop – spend their days exploring the potential in an enormous collection of motors and mechanical bits and pieces. They investigate their way into a huge construction that keeps growing in both size and complexity, until the construction itself takes over the whole workshop. Now, who’s in control? Garage is a humorous investigation of creativity and the ever-lasting belief in progress. | 10< | Cirka Teater | Norbegia | Iraila 2019 | Assitej Artistic Gathering 2019 | Kristiansand | Norbegia |
| **Mother Africa & Her Melodies** | Mother Africa & Her Melodies is an indigenous musical show that infuses a variety of African instruments in to one spectacular showpiece, this piece will take audience in an emotional journey of our music, from the seed to a tree that gave birth to African instruments and the sounds that nature produced. | | Tefo Paya | Hego Afrika | Iraila 2019 | Assitej Artistic Gathering 2019 | Kristiansand | Norbegia |
| **The girl with the ugly face** | Based on interviews with over a thousand children in Norway, Croatia and the UK this brand new show from internationally acclaimed company NIE is a work currently in development that will feature puppetry, movement and multiple languages. The Girl With the Ugly Face is about language: how language changes our perception of the world around us, how the world around us changes language, and how language changes our perceptions of each other. It’s also about being six, and fitting in (or not!), no matter where you are or what language you speak. | 6< | NIE - New International Encounters | | Iraila 2019 | Assitej Artistic Gathering 2019 | Kristiansand | Norbegia |

| IKUSKIZUNA | URTEA | KONPAINIA | HERRIALDEA | HIZKUNTZA | ADINA | ZUZENDARITZA | GAIA | DISZIPLINA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ikimilikiliklik** | 2019 | Marie de Jongh | Bizkaia | Euskera/Gaztelania | guztiak | Jokin Oregi | Bildurren inguruko hausnarketa | antzerkia |
| **Kaskarot** | 2019 | ATX Teatroa | Bizkaia | Euskera | guztiak | Iñaki Ziarrusta | Ezberdina izatearen inguruan | antzerkia |
| **La casa más pequeña** | 2019 | Yarleku Teatroa | Nafarroa | Euskera/Gaztelania | 6< | Rosa Díaz (La Rous Teatro) | Haur errefuxiatuak | antzerkia |
| **Cottontarrak** | 2019 | Anita Maravillas | Bizkaia | - | guztiak | Ivan Alonso | Iraultza industrialean eta mende hasierako emakumeen ehungintzako grebetan oinarritutako istorioa | txontxongiloak |
| **Käffka** | 2019 | Gehitu + Ortzadar LGTBI | Gipuzkoa | Euskera | nerabeak | Erika Olaizola, Amancay Gaztañaga | 2049. urtean gaude. Sistemarentzako nerabezaroa kontrolatu beharreko etapa bat da. Pasioak ez du lekurik gizarte berri honetan. Nerabeen pasioek eragin ditzaketen arriskua eta kaosa ekidin nahian sortu dira Käffka eremuak. Kontestu honetan ezagutuko dira gure bi protagonistak, Lirian eta Orion. | antzerkia |
| **Marierrauskin** | 2019 | Glu Glu Produkzioak | Bizkaia | Euskera | guztiak | Maitane Zalduegi | Marierrauskin-en istorio klasikoa | antzerkia |
| **NOA ¡ Uy Uy Uy !!!** | 2019 | Pantha Rei | Araba | Euskera/Gaztelania | guztiak | Juan Rodriguez Aristegi | mundua berraurkitu dute: bizitza opari sinestezina da, aurkikuntza zoragarria, harridurarako aukera bikaina eta abentura amaigabea | txontxongiloak |
| **Pinocchio** | 2019 | Teatro Gorakada | Bizkaia | Euskera/Gaztelania | guztiak | Jose Carlos García | Pinocchio-ren istorio klasikoa | antzerkia |
| **Amets** | 2018 | Bihar txontxongilo taldea | Bizkaia | Euskera/Gaztelania | guztiak | Bihar | Amets, neska arrunt baten historia da. Guztiok bezala zalantzak ditu, vaina gauza bat argi eta garbi dauka: pirata izan nahi du.<br><br>Ez dute guztiek ulertzen, baina berak bidai bat hasiko du, nahi duena lortzeko. | txontxongiloak |
| **Con-ciencia** | 2018 | Ohiulari klown | Bizkaia | Gaztelania | guztiak | Virginia Imaz | Ahaztutako edo ezezagunak diren emakume zientzialarien oroimenezko lana. | Klown-a |
| **Cuentos de nunca jamás** | 2018 | Let's dance | Bizkaia | Gaztelania | 6< | Eva Ausin Andres | Peter Pan mutil ameslariaren istorio miragarriak. Peterrek gauez beti bizitoki izan nahi izan duen Sekula Betira bisita egiten du. Abesti eta dantza ezin ederragoen bidez, bere tripulazio izateko haurrak bahitzen dituen Garfio kapitain beldurgarriaren aurka borrokatu beharko du Peterrek.<br><br>Bere lagunen babesarekin eta Txilinen magia ahalmenari esker, zailtasunei eta bere arerioaren maltzurkeriei aurre egingo die, umeek galdutako ilusioa berreskura dezaten | dantza |
| **Denboraren taupadak** | 2018 | Patata tropikala | Gipuzkoa | Euskera/Gaztelania | guztiak | Iker Etxarri | | txontxongiloak |
| **Egur taupada** | 2018 | Ttipia produkzioak | Gipuzkoa | Euskera | 3-8 | Ciro Izurrategi | | txontxongiloak |
| **Ehuna** | 2018 | Dantzaz konpainia | Gipuzkoa | - | 1-6 | Dantzaz (fernando) | Airearekin eta gorputzarekin mugimendua jostea, ehunaren dantza egiteko. Espazioa janzten duen oihal handi bat, bertan gorputz jostalariek dantza egiteko. Horrela, gorputzak eta aireak mundu poetiko eta sentikorrean barneratuko dituzte ikusle txikiak | dantza |
| **Enperadorearen jantzia** | 2018 | Lekim Animazioak | Gipuzkoa | Euskera/Gaztelania | 3< | Susana Toscano | Hans Christian ANdersen-en istorioa | umorea + jatorrizko musika eta abestiak |
| **Epa txiki!** | 2018 | Demode Quartet | Gipuzkoa | Euskera | | Mikel de la Fuente | | Musikala |
| **Erbia eta dortoka** | 2018 | Glu Glu Produkzioak | Bizkaia | Euskera | 4-7 | Ugaitz Alegria | Kondaira klasikoa | antzerkia |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Espien eguna** | 2018 | Tomax eta abenturak | Gipuzkoa | Euskera | | Joserra Fachado | | umorea, jolasak, kantak magia eta haur eta gurasoen parte hartze zuzena. |
| **Gizon zoriontsuaren alkar** | 2018 | Teatro Paraíso | Araba | Euskera | | Ramón Molins | Tolstoiren jatorrizko ipuineko paisaien eta irudi guztiak islatzen dituen dramaturgia bisual eta poetiko baten bidez garatzen da ikuskizuna, ikusleak une oro harritu nahi dituzten proiekzioen eta ikusizko efektuen bidez. | antzerkia |
| **Goazen 5.0** | 2018 | Pausoka Entertainment | Gipuzkoa | Euskera | 5< | Idoia Uranga | | Antzerki musikala |
| **Hitz kolpez** | 2018 | Traspasos kultur | Araba | Euskera/Gaztelania | haurrak | Mikel Gómez de Segura | Hitz-kolpez proiektuaren helburua da gazteen arteko harremanetan indarkeria prebenitzeari buruzko gogoeta sustatzea, gazteen erlazionatzeko moduan egunero ikusten diren ideia eta jarrera sexistak identifikatzearen bidez. | antzerkia |
| **Inondik inora** | 2018 | Benetan Be | Gipuzkoa | Euskera | 4< | Patricia Urrutia | Inondik Inora umorea eta poesia, musika zuzenean eta panpinak, euskara eta ingelesa uztartuz, jakinmina eta desobedientzia sustatzen dituen haurrentzako antzezlana da. | antzerkia |
| **Lau** | 2018 | Salto! | Bizkaia | Euskera | haurrak | Maria Urcelay | | antzerkia |
| **Lur** | 2018 | Xake Produkzioak | Gipuzkoa | Euskera | guztiak | Getari Etxegarai | Generoaren ingurukoa | antzerkia |
| **Mari eta gaileta fabrika** | 2018 | Eidabe Ekimen Kulturalak | Bizkaia | Euskera | haur/familia | Olatz Gorrotxategi | Berdintasunaz eta parekidetasunaz | antzerkia |
| **Pinotxo** | 2018 | Glu Glu Produkzioak | Bizkaia | Euskera | 3-9 | Maitane Zalduegi | Pinotxioren istorioa | komedia musikala |
| **Prozak** | 2018 | Malas Compañías Zirko | Bizkaia | - | guztiak | Maite Guevara | Bazterketaren eta estigmatizazioaren kontrako begirada samurra eta komikoa, ikuslea bere burua ere berezi, ezberdin, apart, zoro sentitzera eraman nahi duena. | Zirkoa |
| **Satorjator** | 2018 | Ene Kantak | Gipuzkoa | Euskera | 2< | Urko Oskoz | | musikala |
| **Tontamentean** | 2018 | Ohiulari klown | Bizkaia | - | guztiak | Virginia Imaz | | klown-a |
| **Tunba** | 2018 | Didau Antzerki Faktoria | Gipuzkoa | Euskera/Gaztelania | | Juan Manuel Alvarez | | antzerkia/ objektuak |
| **Txirinbolo** | 2018 | Tutik Clowns + Gari, Montxo eta Joselontxo | Gipuzkoa | Euskera/Gaztelania | haurrak | Garikoitz Muñoz Otaegi/Ramón Irízar Gómez | | klown-a |
| **Xaguxarroski kondea** | 2018 | Txirri, Mirrie ta Txiribiton | Gipuzkoa | Euskera | haurrak | Jose Ignazio Ansorena | | klown-a |
| **Pirritx, porrotx eta marimo** | 2018 | Katxiporreta Coop. | Gipuzkoa | Euskera | haurrak | Katxiporreta Coop. | | klown-a |